

C AUKERA

Dantza garaikidea: ondare klasikoetatik dantza berrira

Dantza postmodernoa irekitako eremuak, Mendebaldeko arteak elikatu zituzten konbentzio askoren aurkakoak, ez zuen beste dantza-joera batzuen kezken ardura; dantza postmodernoa ez bezala, dantza-joera haiek gogoetarako bidea zabaltzen zuten elementu eszenikoen aldarrikapena eginez, teknika eta metodologia berriak garatuz eta iraganeko ondare jakin batzuk kontserbatuz eta beste ikuspuntu batetik aztertuz. Pentsamendu postmodernoarekin batera edo haren osagarri gisa dantza garaikidean ireki zen eremu handi horretan, hurbilketa-mota oso desberdinak aurkitu daitezke, Pina Bauschen antzerki-dantzatik hasita. Joera horien artean daude dantza klasiko garaikidearen proposamen ugari ere; izan ere, elementu neoklasikoetatik abiatutako garapenean, beren hiztegian, beste genero batzuetatik hartutako elementuak txertatzen dituzte.

Era berean, garai honetan garatu ziren historiografiak *nouvelle danse* edo "dantza berria" izenpean bildu dituen hainbat joera koreografiko. Haien oinarrietan, dantza postmodernotik urrun zeuden jarrerak defendatu zituzten: egile-dantza aldarrikatu zuten, egile kontzeptua ezabatzea defendatu beharrean; kontaketa eta antzezpenaz baliatu ziren, aurkezpen hutsaz baliatu beharrean, eta nortasunaren proiektzioa areagotu zuten, elementu pertsonala zalantzan jarri beharrean. Hala eta guztiz ere, pentsamendu postmodernoa berezko zituen irakaspenak ere —kode eszenikoak deseraikitzea, zatikatzea eta zalantzan jartzea— txertatu ziren dantzen lanketa berrietan, eta klasiko, neoklasiko, moderno eta garaikide kontzeptuen arteko mugak sumagaitz bihurtuz joan ziren. Gainera, XX. mendearen azken laurdenean, kritikaren eta erakundearen artean ospea eta arreta lortu zuten sortzaileen lanen zabalkundea handituz joan zen nazioartean; horrek, berriz, gustuak eta gaiak joera global nagusienetara lerratu, eta dantzaren panorama homogeneizatu zuen.

Erreferentzia:

Murga, I. (2023). *La danza. Cuerpos en movimiento a través de la historia*. Cátedra [259-260 or.]

Bideoak:

- https://www.youtube.com/watch?v=EAdJ3XbUoK8&list=RDEAdJ3XbUoK8&start_radio=1
- <https://www.youtube.com/watch?v=oQCTbCcSxis>

Gomendioa: irakurri Idoia Murga Castoren *La danza. Cuerpos en movimiento a través de la historia* liburuan atal honi dagokion kapitulua.